

# Lizartzako ihauteriak 2015

Urtarrilaren 31tik  
Otsailaren 8ra

# bitxurre

SARRERA	3
<b>ATZERA BEGIRA:</b>	
FORUEN GARAIAN ERE PUSKA BILTZEA EGITEN ZUTEN	4
ELKARRIZKETA	6
<b>IHAUTERIAK GOGORATUZ:</b>	
MOZORRORIK ALDATZEN EZ DUTEN IHAUTERIZALEAK	8
IHAUTERIAK 2014 IRUDIZ IRUDI	9
TALDEKA URTEZ URTE	14
ESKOLAKO MOZORRO FESTA	15
OTSOLAR DANTZA TALDEAREN EKITALDIAK	16
<b>HERRIARI BEGIRA:</b>	
ZER EGIN DUGU LIZARTZAN 2014AN?	19
IKASI ETA IKASI	21
AHOTSAK LIZARTZAN	22
2014-AN GURE ARTERA ETORRITAKOAK ETA AGURTUTAKOAK	24
BA AL DAKIZU	25
LIZARTZAN ZER BERRI?	26
<b>OTSOLAR IREKITA:</b>	
LIZARTZAKO EZKER ABERTZALEA	28
LIZARTZAKO PRESO ETA IHESLARIEN LAGUN ETA SENIDEAK	29
PRINTZAK, APAINDU DITZAGUN BALKOIAK	30
EGITARAUA	31

Argitaratzailea:

**Otsolar Dantza Taldea**

<http://otsolardantzataldea.blogspot.com.es> · [www.facebook.com/otsolar.dantzataldea](http://www.facebook.com/otsolar.dantzataldea)

Lege-gordailua: SS-0058/04

Diseinua eta inprimaketa: Antza komunikazio grafikoa



Hemen ditteula, hemen ditteula... askotan bezela gabonak pasa eta seittun harrapatu gaittue iñauterik! Aurten urtarrilen 31en hasiko zaizkiu eta otsailen 7, 8 eta 9in seittukoue!

Partidu oso bat jokatu deu 1994 iñaturik berreskuratu genittunetik, tantoz tanto lan asko eginez 22 urte egitea iritsi gea. Urte guzti hautan Lizartzar guztik jarri deu gure alea aurea ateatzeko, bakoitzek bere neurrin ihauteritan hain gurea degun giroa sortzen lagundu du eta oso lasai eta harro esaten deu Lizartzarrak geala!

Oso gurek dia lhauterik, nahizta jakin ohetik esnatuko gaittuela goizeko txistularik, barra ertzen dagoen pelmak ez digula paken utziko, igande eguarditako dantzak luze xamar joko duela eta gaztetxekok ez duela gauz bat ondo ingo, Lizartzarro ihauterik ilusio eta gogo berezie pizten diguela inok ezin degu ukatu!

Urtetik urtea aurrekoak baino hobeak izateko ilusioa izan beharra daukeu, mugittu bazter guztik, kendu perezak eta aitzakik, moittu kalefazio eta su ondotatik eta atea kalea mozorrotuta, 22. urteurrena inoiz baino hobe izatea lortu behar deu!

### **Otsolar Dantza Taldea**



## Foruen aurretik ere **PUSKA BILTZEA** egiten zuten (foruak erdiarotik 1876 arte)



Ihauterietako larunbatean egiten dugun ekitaldi hori zer da? Zergatik egiten da? Zertarako? Noiztik? Galdera hauen erantzunaren inguruan ibiliko naiz oraingoan. Puska biltzeko ohitura aintzinakoa dela esaten da, zehatz mehatz jakiterik ez dago, baina ihauterietan egiten denaren antzeko ibilaldia egiteko ohitura ezagutu dugu urteetan aurrera goazenok:

Eguberriak direla eta hor joaten gara baserriz baserri, etxez etxe kantuan, eta puska edo dirua jasotzen da. Santa Ageda bezperan ere ohitura handia dute herri askotan antzeko gauza egiteko, koplak kantatu eta puska biltzeko. Herriko pestetan ere oilasko biltzea egiten dute

zenbait herritan, Amasa, Zubieta etab. Zergatik? Pesta giroa alaitu, herri guztiari pestaren berri eman, gonbitea pasa, elkarretaratu, solaserako tartea hartu (ez da gutxi) konturatu gabe askotarako balio du puska biltzeak.

Gogora ekarriko nituzke 60ko hamarkada arte behintzat Ermandadeak ere ezagutu genituela herrietan. Baserrietako ganaduen galerak saihesteko Ermandadea ere bazegoen Lizartzan eta Ihauteri astelehenean Ermandadeko batzordea baserriz baserri ibiltzen zen Ermandadeko kide ziren etxeetan zenbat buru eta nolakoak zituzten begiztatzan, gero norbaiti behia hilerkerako jakitun izateko eta kide guztiei laguntza eskatuta

laguntzen zitzaion galera izandako baserriari. Batzorde honek ere lhauteri asteleheneko "bixita" hau egitean puska biltzen zituen (arrautzak batik bat) gero saldu eta egunaren amaieran arrantxoa edo afaria egiteko.

Guzti honek zer esan nahi du, egun bakoitzean, era desberdinean baina puska biltzeko ohitura oso errotua egon dela gure herrian. Zertarako? Dirua eta jakia biltzeko nagusiki eta gero otorduak egiteko, disfrutatze-ko, elkartasuna adierazteko, ospatzen den egunarekiko atxikipena adierazteko, eskean dabilzanak eta etxeoak harremanetan jartzeko. Antzinako lhauterietan gastuak ordaintzeko beharrezkoa zuten, beren poltsikotik ordaintzen zituzten lhauteriak egiteko izena emandako gazteak soinujolea, ardoa, jatekoa etab. Bi Ermandade arduratzen ziren dirua bildu eta gastuak ordaintzeko.

Noiztik egiten den? Juan Garmendiak nabarmentzen du Santa Agedatan kantatzen diren koplatan "legearekin kunpli dezagun" kantatzen dela, eta gauza jakina dela Foruak ohituretan oinarritutako legeak zirela, beraz, foruak baino zaharragoa dela puska biltzea.

Gureganaino ahozko transmisioz iritsi zaizkigun berriek diote gure gurasoek 1900. urte inguruan Astelehenitaz dianaren ondotik egiten zutela puska biltzea. Bi zaldunak, dantzarien jantziekin baina manto gabe, orratzik eta erraztunik gabe, urrutieneko baserrietaraino joaten ziren. Felix Barriola Maritxalar zenaren hitzetatik hartuta ezagutzen dugu zaldizko hauen ibilera bat: 1930 inguruko lhauterietan elur handia zegoela eta arrautzez beteta zutela zaldia lurrera erori zela, baina zorte onez ez zela arrautza bat bera ere hautsi (arrautza gogorak egiten zituzten oiloak orduan) Dantzariak, txistulari eta atabaleroarekin eta kamareroak, beste etxeetako atak jotzen zituzten. Atarian, kapitainak, dantza sailetik berak nahi zuena dantzatzeko zuten. Etxeetan ematen zieten gutxienez dozena arrautza. Eta txerria hil berria bazen, txorixoa eta xolamua ere bai. Gaur egun ere baserrietan eskuzabal azaltzen dira baina, ikusten denez ohitura hori lehen ere horrela izaten zen Kale etxeetakoak dirua ematen zieten eta ematen dute gaur egun ere, kamareroak ziren poltsero eta puska eramaile. Kaleko puska biltzean ere zer esanik ez, karroza edo galera izeneko gurdi



baten gainean ibiltzen zutela lhauterietako jaten zuten alkate ordea. Mutilak beraiek ibiltzen zuten galera edo karro hori, batzuek bultza eta, besteak tira.

Zalduak eta dantzarien eskeari erantzuten zieten etxe jauna edo seme zaharrena Asteartitako bazkaria gonbidatua izaten zen, bainan ez zen doakoa izaten, baizik eta 5 pezeta ordaintzen zuten. Bazkaria garbanzuak eta aurrez hildako txekorra izaten ziren, gaur egun egiten dugun bezala.

Lizartzako lhauterietan ez ziren mozorroak faltatzen, hauek Astelehenitaz eta Asteartitaz ateratzen ziren, ezkonduak nahiz ezkongabeak izan zitezkeen eta puska biltzea ere egiten zuten, baina lhauteri giroan erabat trakets eta ustekabekoan. Felix Barriolaren esanetan dozena erdi bat koadrila ibiltzen ziren emakumez edo ijitoz etab. mozorrotuta, eta hauetako kide bati (...izenekoa) "ipurtaundi" deitzen zioten eta elur asko zegoenez galtzak jaitsi eta elurretan eseri zen eta neurtzen aritu ziren, 45zm neurtzen omen zuten ipurdiak. Beste batek patata batekin egindako erlojua zeraman eta lurrean eseri eta "Roncalesa" gerarazi zuten.

Ikusten denez umorea eta pesta girorik ez da falta izaten puska biltzeko ekitaldian, gaur egun ere, gure gazteek dantzari nahiz mozorroek ongi pasatzeko aukerarik ez dute galtzen puska biltzeko aitzakian eta horrela jarrai dezatela urte askoan, gure lhauterien osasun onaren seinale.



# Joxe Mari Zinkunegi Agirre

1932an jaio zen Lizartzan, gaur 83 beteak ditu baina 14-15 urterekin (hau da 1947 inguruan) lhauterietan puska biltzen ibiltzen zirela gogoan dauka txantxo edo mozorro moduan.

### **Ihauterietan puska biltzeko ohitura, nola ospatzen zen zuen gazte denboran?**

**J.M.Z.:** 4 edo 8 lagunez osatutako taldea ateratzen ginen, arratsaldeko 6etan Uretatik gora Asuretan barrena hasi eta Lizartzako etxe guztiak pasatzen genituen goizeko 1:00alderarte, ondoren diruak kontatu eta Txomiñenean afaria, oiloa gixatuta eta konpota edo, prestatuta egoten zen. Kostoa guk bildutakoa izaten zen, falta bazen berak galtzen zuten, gehiago bildu ezker beretzat.

### **Mozorrotzen al zineten, eta nola?**

**J.M.Z.:** Isilka, inori esan gabe prestatzen ginen beste taldeak jakin ez zezaten, haiei aurrea harrapatzeko. Gehienok ijito edo emakumez jantzita, buruan mantaliñe edo galtzerdi bat sartu eta soineko zahar bat jantzita. Etxetan buruko mozorroa kentzen saiatzen ziren bai, gu ezagutzearen eta parrak egiten zituzten.

### **Zenbat talde ateratzen zineten?**

**J.M.Z.:** 3 edo 4 talde bai. Gurean Juan Bautista Barriola, Joxe Manuel Gamendia (Diesela), Joxe Bitor Bengoetxea (Iturralde), Urkulaneko Joxe Zubillaga, eta anaia Julian eta biok izaten ginen. Gu umeak ginela 1940 ingu-

ruan gogoan dut Agerreko Inaxio Luluaga, Zumitzako Eugenio Zubillaga, Luis Mendigain "argiñe" eta Iruntziko Jose Zabala ibiltzen zirela eta Eugenion kareta izugarrizko bildurra ematen zigula, kaleko atarian ikusi eta etxeko sukalderaino ez ginen berehalako iristen korrika. Hauek oso umoretsu eta era zelebreaan ibiltzen ziren, Luis "argine" amonaxarrez jantzi oker oker eginda eta gora botaka ibiltzen zuten.

### **Zer ematen zizueten etxeetan?**

**J.M.Z.:** Gehienek dirue, pezta bat edo. Iruntzitan duroa ematen zuten eta talde guztiak elkarri aurrea harrapatzen ibiltzen ginen aurrea iristeko. Karteroenea eta Errota txikira ere joaten ginen. Urkulaneko Joxek esan zigun bere aitak dozena arrautza emango zigula joaten baginen eta gu joan, eta baita eman ere, pozik bueltatu ginen gu handik.

### **Gertakari xelebrerik?**

**J.M.Z.:** Bi neskazahar bizi ziren baserri batean eta bat zetorren ate aldera bi arrautza eskuan hartuta guri emateko. Ahizpak ikusi zuenean "bat nahikoa diñea" esan eta kendu egin zion gure kalterako.

### **Zer aldaketa nabaritzen duzu orduko eta oraingo puska biltzearen artean?**

**J.M.Z.:** Orain baserrietakoa askoz alaiagoa da, etxetako ongietorriak eta puskak ez daukate zer ikusirik ordungoarekin dantzariekin batera ibiltzen dira eta baina, kaleko puska biltzea motel xamar ikusten dut nik, ia jenderik ez da ateratzen baina, txirrina jo behar litzake, guk denetan atea jotzen genuen.

# Nikolas Bengoetxea Altuna

Lizartzan jaio zen 1934ean, beraz 80 urte beteak ditu, lhauteri dantzaria izandakoa da, eta berak gogoan du 1956ean puska biltzen ibilitako lhauteriak.

## **Puska biltzeko ohitura ezagutu al zenuen gazte denboran?**

**N.B.A.:** Bai, gure taldearekin 1956ean behintzat ibili nintzen, gero soldadutzara joan eta gazte berriak sartu ziren taldean eta nik ez nuen jarraitu, baina taldeak beste urte batzuk jarraitu zuen.

## **Nortzuk osatzen zenuten taldea?**

**N.B.A.:** Joxe Manuel Etxeberria, Iñaki eta Lontxo Zubeldia, Joxe Lasa, Axentxio Eizagirre, Matias Mendigain, Rafael Arozena, Enrike eta Manuel Goikoetxeandia, Luis Beldarrain, Angelin Artola, Joxe Mari Bengoetxea eta ni neu behintzat gogoan dauzkat. Zaldiarekin Indianeko Joxe Etxeberria eta txistua jotzen Zakarko Eugenio eta Estanis.

## **Nola egiten zenuten puska biltzea, eta nondik nora?**

**N.B.A.:** Igande arratsaldean "bezperak" egin ondoren lhauteri dantzak dantzatu eta ondoren, "abe Mariak" jo arte soinua plazan. Astelehen goizean goiz hasi ospelitik, eta zelainetik barrena eutera pasa eta gero eguerdian kalean behera bukatzen genuen. Kontzejal etxe eta beste etxeetan ere etxe dantza dantzaten zen Gero Sutegin bazkaria prestatzen zuten Maria eta Emilia ahizpak, eta garbantzuk eta bildutakoa bazkaldu ondoren Manolokin nahiko soinue eta plazara ere bai, ondoren afaria. Asteartean ere sobratutakoarekin otorduak egiteko eta ardoa ordaintzeko ere iritsi zen.



## **Zer ematen zizueten etxeetan?**

**N.B.A.:** Baserrietan puska hobea izaten zen txerria ere hitzen zuten eta, urdaie, txorixoa eta oilaskoa eta arrautzek eta dirue ere bai, Kalean ere gu pasatzean azaltzen zen jendea bere puska ematera.

## **Ondo pasatzen al zenuten?**

**N.B.A.:** Bai, lhauterietan kategorian pasatzen genuen, umore onean, Manolo Handiarekin etab. Baina aurretik estu hartzen gintuzten erakustailak, Antonio Gamendia (txoferra), Jose Ignazio eta

Miel Zubeldia, Angel Artola eta Inazio Etxeberria izan ziren gure maisuak.

## **Zer aldaketa dago orduko eta oraingo puske biltzeen artean?**

**N.B.A.:** Nire ustez aldaketa handirik ez, dantzariz jantzi-ta joaten ginen gu ere, etxeetako ongietorria ere gaur oso ona da baina, orduan ere zain egoten ziren dantzak ikusteko, eta umorea gaur bai, baina orduan ere ez zen faltatzen.

## Mozorrorik aldatzen ez duten ihauterizaleak

Sarritan irakurri edo entzuten dugu ihauteriek urtean zehar erantzi ezin ditugun rolak albo batean utzi eta urtean behin bada ere, egunerokotasunean garen hori ahaztuz beste norbait izateko aukera eskaintzen digutela. Hau da, izaera, lanak, janzkerak atzean ahaztu eta pertsonaia berri baten azalean sartzeko parada izaten dugu. Badira ordea, mozorroa aldatzeko aukerarik ez duten bi koadrila eta ondorengo lefroetan euren gana zuzendu nahi genuke zuen arreta.

Goazen bada, ihauterietan mozorro beraren pean ezkutatzen zaizkigun bi lagun talde hauek hobeto ezagutzera.

**Ihauteri bezperako ostiral goiza, goizeko 8.00ak.** Andresorotik behera traktore hotsa entzun dezakegu.. Karrozaren bat ote? Egunez nahastu ote da? Ez, ez frontoi ingura doa. Bertan, bada beste lagun koadrila bat jo eta su lanean: egurra ekarri, aldamiok muntatu, toldoa prest jarri, plastikoekin ingurua babestu eta imajina ezin ditzakezuen beste milaka egin beharretan buru belarri dabilta guztiak.

**Ihauteri igandea, goizeko 8.00ak** Berrero ere koadrila bera, aldamiu inguruan bildu da, sua egiten hasi dira. Sugarrak kontrolpean dituztenean, euriaren aurka toldoa jarri. Haragia ere zatitua eta prest dute.

**Ihauteri igandea, eguerdiko 14.30ak.** Frontoia jendez gainezka den bitartean hasi da mugimendua kanpoaldean. Txingarretan erretako txekor zatiak, mahai gainean jarriz laster jarri dituzte laban eta aiztoak dantzan. Zerbitzariak lehen zatiak dastatu dituzten baz-



kaltiarren iritziak kontatzen dizkiete gure protagonistei: gutxiegi egin dela, gehiegi, ederra dagoela... Hauek laster batean, ahal den neurrian denen gustuak eta kapritxoak asetzeko ahaleginetan murgiltzen dira.

### **Ihauteri igandea, arratsaldeko**

**17.30ak.** Nahiz eta soberan gelditu dena soilik izan, zer edo zer bazkaltzeko txanda iritsi zaie gure lagunei, beste guztion moduan bazkari txartela ordaindu baitute.

**Ihauteri ondorengo astelehena, arratsaldeko 15.00rak** Ihauteri ajeak albo batean utzi eta xaboez beteriko eskutrapuen festa hasi da elkartean. Hemen topatu dugu gure bigarren lagun taldea. Hauek ere sekula huts egin gabe igandeko bazkariko ontzi guztiak garbitzen ari dira urtero legez.

Guzti honekin azpimarratu nahi genuke, igandeko bazkarian eseri, bapo jan, purrusta batzuk bota zerbitzariari eta bazkaltzetik altxatutakoan etxera doazenak bezalaxe ordaintzen dutela beren bazkari txartela.

Honezkerok, gehienok konturatuko bazineten ere igandeko bazkaria posible egiten duten erretzaile eta ontzi garbitzaile taldeaz ari gara, ez zarete ez makalak! Biba zuek! mila mila esker ihauterizale guztien partez!

Aurtengoan zuen begirunea eta esker ona ere jasoko dutelakoan, ON EGIN!



# Ihauteriak 2014



Festarako prestaketak, urduritasuna, egon ezina,..Noiz hasiko da Iñauteria?



Bale, bale bale, hasi da pregoia, bakero arraroak ezta? Eta zaldia non du?



Ume, nahiz heldu, dantzari nahiz agintari, danak dotore dotore.



Bueno, bueno, gure antzezleak ere ezin ahaztu, kuadrilla ederra, eta urtetik urtera hobeak gainera



2014ko agintariak hauek izan ziren. Elegante!!!!



Antzezlan propioa urte honetarako, hori da abilezia, umorea eta "artea"

# I h a u t e r i a k



Txekorra ere bertan izan da, noski urtero bezala.



Lan on batek gero bazkari ederra dakar.



Firin Faran, txistu, soinu eta ... dantza, sasoia hori...



Soinu eta dantza, guztiak batera.



Kantu poteoa ere lehenengo aldiz Iñauterietan, giroa berotzeko.



Gazteak bakarrik ez, helduak ere ederki egiten dute dantzan.



Lara, lara, lara.lara... hori dek kanturako griña.

2 0 1 4



Uffaaa!!!! Goizean goiz baserriz baserri puska biltzea, soñua bai baino hitz gutxi.



Eskerrak hasterako txokolatea jartzen diguten eta barrenak berotuta earki.



Bueno, orain bai, goazen baserrietara, kontu kontari.



leuuuppppp!!, orain bai sasoia, . . .



Etxe zaharko gosarie noiz iritxiko zain eta, azkenean iritxi gaituk, earki sartzek.



Baserritako buelta bukatuta geo, segi jaten, edo edaten frontoian, kontu batzuk, sagardo pixkat, . . .



Itxura aldatzeko egun aproposa, egunerokoa aparte utzi eta , bakoitzak ahal duen bezala, . . .

# I h a u t e r i



Antzerki pixkat egitteko aukera ere izaten da, giro ona eta par pixkat eta ondo pasatzea helburua. Beti kuadrillen.



Igande goiza, agintariak karroan hartu eta herriari buelta bat,...



Batzuk kanpoan, besteak barruan, festa giroan.



Usario zaharrak mantenduz, gure helduengandik ikasia, talo prestaketan. Iñauteria?



Batzuk lana egin behar besteak jateko, baina pozik...



Plazan urteroko ikuskizuna, dantzari eta txistulariak, Iñauteri dantzak dantzatzu.



Musika alaia eta gurea dena.

a k 2 0 1 4



Igandeko herri bazkaria, beste behin sukaldari kuadrila fina, prestatze lanetan.



Eta zer esanik ez, zerbitzu lanetan aritzen diren kuadrila hau ere.



Bazkari on baten ostean jolas egin nahi?



Parte hartzaierik ez zen falta. . . .



Parra, irrifarra, algara, . . . nahi dena.



Oilaskoak ere banatzen dira, beste afari bat egiteko motibo faltarik izan ez dedin.



Gauza guztiek duten bezala, lñauteriek ere bere amaiera izaten dute. Guk su emanez bukatzen dugu, nahiko eginda, datorrengoei begira jartzen gara.

## Taldeka urtez urte



### Zer dira zuentzat ihauteriak?

Herri giroan ondo pasatzeko festak.

Mozorroaren babesean, normalean ausartzen ez zaren erokeriak egiteko aukera ematen duten egunak.

### Ihauterietan zer duzue gustukoan?

Gustuko dugu, egunean bertan, taldekoak elkartu eta kalera irteko prestatzerakoan sortzen den giroa. Batzuk berandu datoze-lako, besteak azken momentuko zerbait sortu delako... denak barruan "puntu" berezi batekin. Bai haurrak eta bai helduak.

Behin kalera irtendakoan, gure mozorroarekin disfrutatuz eta bes-teen mozorroak ikusiz primeran pasatzen dugu.

### Zerbait aldatuko al zenukete? Zer?

Denetik egiteko aukera ematen dute festa hauek. Taldean egun ederrak pasatzeko, norbere buruaz eta besteenaz barre egiteko, bapo jan eta edateko .... Ez dugu ezer aldatzeko beharrik ikusten.

### Izaten al duzue inoren laguntzarik karroza edo mozorroa prestatzerakoan?

Gurea, talde handia da eta gauza gehienak denen artean egiten ditugu. Baina hala ere, egun horretan taldean ateratzen ez diren zenbait lagunengatik laguntza ere behar izaten dugu.

### Nondik nora bururatzen zaizkizue mozorro ezberdinen ideiak? Normalean bilerak egiten dituzue ihauterien aurretik?

Lortutako oilaskoak janez egiten dugu lehenengo bazkari-bilera. Eta, bazkari hori ez da bukatzen hurrengo urteko mozorroa erabaki arte.

Otorduan zehar, bakoitzari bururatzen zaizkion mozorroak proposatzen aritzen gara. Beste nonbaiten ikusitakoak batzuk, norberak asmatutakoak besteak.... Ondoren, proposamen guztien lista bat egin, eta jendeari gehien gustatzen zaiona aukeratzen da.

### Gogoratzen zaretela zein mozorroekin pasatu duzue hobetoen?

Egia esan, ez daramatzagu guk urte asko taldean ateratzen. Beraz, ez daukagu mozorro aukera handiegirik. Oso zaila da bat aukeratzea, orain arteko guztiekin oso gustura geratu baikara.

Hurrengo urteko mozorroa prestatzeko elkartzen garen bazkari horretako komentarioa izaten da honakoa: "lazkoa bezain ondo ateratzea zaila izango da". Baina, orain arte lortu dugu!!!

### Aurtengo ihauteritako burutapenik bai?

Ba, dagoeneko oilaskoak janda daude eta bazkaria bukatuta. Beraz,...

## Eskolako mozorro festa

Gogoratzen al duzue iaz ipuinetako pertsonaiek konkistatu zutela Lizartzako Eskola? Ikusi-ikusi ostiral arratsaldean zein pertsonaia izan genituen gure herrian. Gainera, dantza eta koreografia dotoreak eskaini zizkiguten! Gozatu irudiez!



## Otsolar Dantza Taldearen ekitaldiak

Jakina den bezala, Otsolarrek ekitaldi batzuk antolatzen ditu urtean zehar Lizartzan. Honez gain, herriak antolatutako ekitaldietan ere parte hartzen du. Baina ez da herrian soilik geratzen, herritik ere ateratzen gara Lizartzako dantzariak, beste herrietan ere bertako dantzariak ikusteko aukera izan dezaten. Jarraian, 2014 urtean zehar Otsolar dantza taldeak zein ekitalditan parte hartu duen ikus dezakezue.



### Erregen etorrera

Urte batzuk badira erregeei ongi etorria egiteko taldeko txikienek dantza egiten dutela, eta 2014an ezin zuen gutxiago izan. Txikieneztat egun berezia izaten da, ilusioz gainezka egoten dira eta erregeek oso gustura ikusten dituzte beraientzat espreski prestatutako dantzak.

### Ihauteriak

Ihauteriak dira Otsolarrentzako antolatzen dituen egun berezienak, egitaraua antzekoa izaten da urtero, baina berezitasunak izaten ditu, pasa den urteko ihauterietako berrikuntzak kantu poteoa eta Galdakaoko bideo emanaldia izan ziren.

Ihauterietako lehenengo asteburua ihauteri giroa pizteko izaten da, asmo horrekin, kantu poteoa egin genuen, Lizartzako ihauterietako abestiak gogoratu eta abestuz.

1985eko irailaren 15ean Lizartzako dantzariak Galdakaon dantzatu zituzten ihauteri dantzak, eta ekitaldi horretako bideoa ikusi ahal izan genuen otsailaren 20an.

Berrikuntzez gain, ohikoak diren dantza emanaldiak ikusteko aukera ere izan genuen, lehenengo asteburuko larunbatean eta baita bigarren asteburuko igandean ere.





## Dantzari txiki



Herriko dantzari gaztetxoek herritik ateratzeko aukera izan zuten, Tolosako eta Anoetako Dantzari Txiki ekitaldietara joan ziren.

## Lizartzako ihauteri dantzak Hondarribia eta Donostian



Maiatzaren 24an Lizartzako ihauteri dantzak ikusteko aukera izan zen Hondarribian, Kemen dantza taldeak antolatzen duen "Hondarribia Dantzan" ekitaldiaren baitan. Bertan, lizartzarrok, Biasteriko dantzarien eta Ortzadar folklore elkarteko kideen ondoan, Hondarribiko kaleetan zehar dantzatu genuen.



Donostiako Aste Nagusiko XXXVII. Txistularien Kontzertu Nagusian dantza egiteko aukera ere izan genuen. Besteak beste, Imanol Lazkano, Alaia Martin, Alex Sardui eta Kresala dantza taldearekin oholtza partekatuz, Jose Ignazio Ansorenak zuzendutako ekitaldian.

## Erromeri eguna

Bigarren aldiz erromeri eguna antolatu genuen ekainaren 7an, giro bikaina sortu zen eta dantza egiteko aukera ugari izan zen. Tolosako Udaberri dantza taldeko kideak izan genituen gonbidatu eta guztiok batera, herriko kaleak dantzaz alaitu ondoren, plazan bazkaldu genuen. Amaitzeko, Unsain taldearekin erromeria giro ederra izan genuen.



# 2015 Lizartzako ihauteriak



## Festak

Urtero bezala, festetan ere eskaini zuten beraien emanaldia Otsolar taldeko gaztetxoek. Honez gain, dantza soka ere egin genuen.

## Hondarribiko dantzariak Lizartzako ihauteri dantzak ikasten

Azaroaren 29an Hondarribiko dantzarien bisita izan genuen, badira urte batzuk talde honek Lizartzako ihauteri dantzak ikasi zituela eta errebaso bat emateko asmoz gerturatu ziren bertara.



## Gabonak

Olentzerori ere dantzak eskainiz egin zioten etorrera taldeko gazteek.

Ekitaldi hauez gain, urtero bezala, Otsolarrek parte hartu du omenaldi eta ezkontzetan ere. Gainera, urte osoan zehar eskaintzen ditu ikastaro ezberdinak, txikientzat, gaztetxoentzat eta baita helduentzat ere. Lizartzako ihauteri dantzak irakasteaz gain, Euskal Herriko dantza ezberdinak ikasteko aukera ere ematen du. Amaitzeko, Otsolarren zeregin handienetako bat ihauteri aurretik argitaratzen den aldizkari hau izaten da eta 2014an zehar ere burubelarri ibili da ahalik eta aldizkari osatuena burutu nahian, ea gustuko duzuen!



ZER EGIN DUGU LIZARTZAN 2014AN



2014-01-05 Erregeak.



2014-02-15 22,23 lhauteriak.



2014-03-08 Lizartzako udala saria.



2014-05-19tik 23ra eskolaren astea.



2014-05-25 gure esku dago.



2014-06-07 erromeri eguna.



2014-06-27 Naparraren erakusketa.



2014-07-19 Gazte eguna.

# 2015 Lizartzako ihauteriak

ZER EGIN DUGU LIZARTZAN 2014AN



2014-09-05tik 2014-09-08ra Lizartzako festak.



2014-09-24 Ipuin kontaketa zeinu hizkuntzan.



2014-12-03 Euskararen eguna.



2014-12-05 Olaetxeari omenaldia, Jaka eta Olaetxearen partidekin.



2014ko abenduko kultur ekitaldiak



2014-12-24 Gabonak.



2014-12-29 Musika eskolako jaialdia.



2014-12-31 San silbestre lasterketa.

## Ikasi eta ikasi

Urteak dira herrian gure denbora librean ekintzak egiteko aukera dugula. Udaletxeak, guraso elkarteak edo Otsolar dantza taldeak helduentzako zein gazte edo umeentzako ekintzak eta ikastaroak antolatzen dituzte. Hauek dira eskura ditugunak:

### PILATES ETA GIMNASIA

Ikastaro hauek Udaletxeak antolatzen ditu. Astearte eta Ostegunetan 17:30etatik 18:30etara Pilates eta astelehen eta ostegunetan 9:00etatik 10:00etara Gimnasia egiteko aukera dugu. 13 bat herritar Gunean elkartzen dira astero kirol piska bat egiteko.

### EUSKARA IKASTAROAK

Aurten lehenbiziko aldiz, udaletxeak euskarazko ikastaroak antolatu ditu. Astearte eta ostegunero Gunean (15:30etatik 17:30etara) biltzen dira lehen mailako klaseak jasotzeko. Beraiekin pixka bat hitz egiteko aukera izan dugu eta giro aparta dutela ikusteaz gain, gustura daudela ikusi dugu. Koldo irakasleak Jadra, Estrella, Eliana, Li, Mariela eta Paula ikasleentzat saioak prestatzen ditu. kurtsoa urtarrilean hasi eta ekainean bukatuko dute.

### PILOTA

Urteak dira pilota ikastaroak antolatzen direla Lizartzan. Udaletxeak antolatutako ikastaro hauetan Lizartzako hurrek ostiralero (16:00etatik 17:00etara) kirola ezagutzeko eta pilotaz gozatzeko aukera paregabea dute.

### DANTZA IKASTAROAK

Otsolar Dantza Taldeak ere heldu, gazte edo haurrentzako saioak antolatzen ditu. Talde hauek saio desberdinetan banatzen dira, irakasle eta dantza desberdinak eginez bertan.

Astelehenetan 18:00etatik 19:00etara txikienak Gunean elkartzen dira dantza munduan murgiltzeko eta

dantzaz gozatzeko. Ondoren 19:00etatik 20:30etara gazteak dantza berriak ikasteko.

Asteazkenetan hiru saio desberdin daude. 16:00etatik 17:00etara Lizartzako inauterietako dantzak, 18:00etatik 19:00etara fandango eta arin-arin saioa eta 20:30etatik 21:30etara helduen saioan plaza dantzak ikasteko aukera dago.

### ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK

Guraso elkarteak ikasturtean zehar haurrentzako bideratuta dauden ekintzak antolatzeaz arduratzen da. Aurten aukera bat baina gehiago proposatu dituzte eta azkenean bi ikastaro burutzea lortu dute: Judo eta Gimnasia Erritmikoa. Lehen astelehenetan egiten da eta bertan 5 urtetik gorako haurrak elkartzen dira. Bigarren aldiz, haurrak asteartean elkartzen dira eta 6 urtetik gorakoentzako haurrentzat zuzendua dago.



Jadra, Koldo, Eliana, Li eta Estrella ikasle eta irakasleekin elkartu ginen bere saioetako batean. Bertara hurbildu zen ere Estibaliz, Estrella ikastearen alaba.

## AHOTSAK Lizartzan



Lizartzan proiektu honetan parte hartu duten hizlariak

**AHOTSAK**, Euskal Herriko ahozko ondarea eta herri hizkerak bildu eta hedatzea helburu duen proiektu bat da. Horretarako gure herrietako adineko jendea elkarrizketatu eta euren euskara eta bizipenak jasotzen ditu.

Euskal Herri osoko ahozko ondarea jasotzeko asmoz, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa, Nafarroa Beherea eta Zuberoako 285 herritan 4.725 hizlarien 51.898 pasarte jaso dira jadanik.

Elkarrizketa hauek audio edo bideo bidez jasotzen dira eta pixkanaka ahotsak.eus interneteko webgunean datu base oparoa osatzen ari da. Webgune honetan elkarrizketak entzun, ikusi edota transkribatuta aurki daitezke lizentzia librearekin.

Ahotsak bizirik dagoen proiektu bat da, etengabe ari da materiala biltzen, lantzen eta datu basea eguneratzen.

Proiektu honen ardura duen Badihardugu Euskara Elkarteak, 2010-2011 bitartean 13 grabazio egin zituen Lizartzan, Gipuzkoako Kutxarekin eta Gipuzkoako Aldundiarekin sinatutako hitzarmenaren barruan. 2012-2013 urte bitartean, Lizartzako Udalarekin sinatutako hitzarmenaren baitan, bildutakoa landu eta sareratzeari ekin zitzaion, 2014 urtean aurkeztu zelarik proiektua Lizartzan.

Lizartzarrei egindako elkarrizketetan ia 200 pasarte jaso dira. Hona hemen hoietako batzuen aipamenak:

## **Anjela Arruabarrena Sarasola – 1933**

- Ogia eta taloa nola egiten diren.
- Zerkausiko "tratu"-ko giroa.
- Artilezko koltxoak.

## **Clara Antonia Arruabarrena Sarasola -1919**

- Gazta nola egiten den.
- Neskametzako kontuak.
- Suila ura garraiatzeko.

## **Joxepa Artola Artola - 1930**

- Gerra ondorengo gabeziak.
- Heriotzaren inguruko ohiturak.
- Inguruko herrien gaitzizenak.

## **Joxepa Atxega Olasagasti - 1932**

- Nikolas Ormaetxea "Orixe" maisu.
- Dontzeila, Donostian.
- Kaxiano Iburguren "Kaxa".

## **Pello Garaikoetxea Gibelalde - 1930**

- 16 urterekin autoa gidatzen hasi
- Larreanea fonda.
- Lizartzako inauteriak.

## **Manolo Iburguren Molinaga -1929**

- Hamar urterekin Martutenera morroi.
- Soinua entzun orduko jendea dantzan.
- Kaxiano anaia nola geratu zen itsu.

## **Julian Zinkunegi Agirre 1930-2013**

(Bere anaia Joxe Marirekin egin zitzaion elkarrizketa)

- Instrukzioak bukatu eta basolanera.
- Arditarako afizioa.
- Traperoa eta artilea.

## **Joxe Mari Zinkunegi Agirre – 1932**

(Bere anaia Julianekin egin zitzaion elkarrizketa)

- Festetan, soinujoleak eta ttuntuna.
- Apaiza eta alkatea bertso saioak zaintzen.
- 14 urterekin gaua gartzelan pasatu.

## **Mahai-inguruan: Maria Zinkunegi Agirre (1934), Sagrario Urdanpilleta Gogorza (1933), Sagrario Soroa Iturrioz (1932) eta Luxia Garmendia Garmendia (1932)**

- Karatxoa eta katu hestezko pelota.
- Neskametzatik komentura.
- Tropak Lizartzara heldu zirenekoa.

## **Maria Esnaola Arregi -1915**


Honen pasarteak Leaburu, bere jaioterrian agertzen dira eta oraindik ez daude ikusgai, ezta irakurtzeko moduan ere.

Hemen ez aipatu arren, baliteke Lizartzan jaio eta beste herriren batean bizi den edo Lizartzan bizi eta beste herriren batean jaio den hizlariren bat beste herriren batean agertzea. Hemen aipatu direnak, 2014-ko Urriaren 28-ko Lizartzako Ahotsak proiektuaren aurkezpen ekitaldikoak dira.

Pasarte ugari dira eta oraindik denak ikusgai ez badaude ere benetan dira interesgarriak. Lizartzako historia eta kulturaren zati bat gorde eta zabaldu da honen bidez. Bejondeizuela!! Aurrera begira ea elkarrizketa berrien bidez ondarea handitzen dugun!!

Informazio iturria: [ahotsak.eus](http://ahotsak.eus)


## 2014AN GURE ARTERA ETORRITAKOAK




**Unai** Ardibide Barriola  
(Martxoak 19)



**Xanet** Zubillaga Alvarez  
(Maiatzak 22)



**Ainitze** Olariaga Castillo  
(Maiatzak 30)



**Alaitz** Barriola Zubillaga  
(Irailak 30)



**Araitz** Esnaola Etxeberria  
(Azaroak 17)

## 2014AN GURE ARTETIK AGURTUTAKOAK



• Juan Bautista Balerdi Iturriotz	2014-05-26	87 urte
• Margarita Murua Urruzola	2014-07-04	88 urte
• Gregorio Lopetegi Larrarte	2014-09-04	67 urte
• Begoña Pérez Sánchez	2014-10-20	54 urte
• Modesta Luluaga Gastesi	2014-11-01	86 urte
• Justo Ayastuy Gastesi	2014-11-30	89 urte



## Ba al dakizu?

**Ba al dakizu:** Lizartzako seme bat, herriko kanposantutik kanpo, lurperatu zutela, 1.872 tik 1.876 tartean, hau da: hirugarren gerra karlista deitzen zaionean.

**Ba al dakizu:** 1.876 an liberalak, berriro udal agintea hartu zutenean, sartu zutela kanposantuan, ekintza, jai giroan ospatuaz.

**Ba al dakizu:** Garai hartan, elizari, HAMARRENAK, ematen zitzaizkiola, hau da zerga moduko laguntzak esan daiteke, eta, nagusiki, ONDASUNETAN izaten zirela, eta, dirutan eman nahi izateagaitik gertatu zela hori.

**Ba al dakizu:** Ondasun horiek, Tolosako ferian salduta, etekin hobea ateratzen zitelako nahi zituztela hamarrenak ondasunetan jaso, dirutan ordez.

**Ba al dakizu:** Hamarrenen ordainketa era edo sistema, hau da: ondasunetan bakarrik eman beharra izatetik, dirutan ere, egiteko aukera, liberalak jarri zutela.

**Ba al dakizu:** 1.872 an, hirugarren gerra karlistaren hasieran, Lizartzako udalean agintean zeuden liberalak, ihes egin beharra izan zutela, karlistak jarriaz agintean, eta, gerra galdu ondoren, 1.876 an, liberalak itzuli, karlistak bota, eta berriro, liberalak hartu zutela udal agintaritzan. Lehen esan den bezala, orduan sartu zuten kanposantuan, kanpoan lurperatuta zegoen herritarra.

**Ba al dakizu:** Zein eskubide zituen Lizartzatar orok, Inasusko iturriekiko, hau da: han sortzen zen urarekiko, lan-egia edo enpresa eraiki zenean.

**Ba al dakizu:** 1.907 an, Jose Antonio Olano Treku, "kris-to txiki" izengoitikin ere ezagutzen zen garaiko alkate eta udalbatzak, Narbaitzuko garolekuak, pinudi bihurtu nahi izan zituztela, eta, Gipuzkoako Foru Aldundiak galerazi ziela, Lizartzako baserritarren aurkako erabakia zelako.



**Ba al dakizu:** JOSE MARI JATETXEA bezela ezagutzen danelako semea zela herritar hori, AGIRREBARRENA deitura zuena, egungoen odolekoa alegia.

**Ba al dakizu:** Otarrakin, hau da: Ote adarrekin, karea egiten zuenak, ezin zuela karea saldu, bere probetxurako bakarrik egin zezakela alegia, eta ixuna jasotakorik izan zela.

**Ba al dakizu:** Horrelako histori asko, eta garrantzizkoagoak ere, badaudela Lizartzako udal artxiboan, azterketa sakon bat egiteko, aukera izan zai.

**Ba al dakizu:** Gure aurrekoek bezelaxe, zu ere, nahi ala ez. Konturatuta edo konturatu gabe. Taldeka nahiz bakarka, Lizartzako herriaren historia egiten ari zarela. Zure ekintzekin, eginbeharrekoak ez eginarekin, utzi zizkiguten ondasunak nolabait zainduaz, ondorengoei eragozpenak eta hipotekak sor ditzazkieken ekimenak, gehi-egi sakondu gabe aurrera eramanez, etab, etab....

Beraz, garbi dago, Lizartzatar bakoitza dala, Lizartzako herriaren historigilea.

## Lizartzan zer berri?

Herri txikia izateak ez digu, egunkarietan eta hedabideetan agertzeko aukerarik kenduko ez horixe! Hona hemen azken urtean gure herriari buruz komunikabideek argitaratua.

### Lizartza Zero Zabor herria



Sortzen dugun materia organiko guztia herrian bertan kudeatzen dugu, eta gainerako zatiki guztiak ere gaika biltzen ditugunez, ez dugu ia errefusa sortzen.

### Jaka Bigarren Mailako Binakako Txapelketako irabazle 2014-04-26



Erik Jakak eta Beñat Rezustak Bigarren Mailako Binakako Pilota Txapelketa irabazi zuten. 22-4 irabazi zuten partida, faborito zergatik ziren argi utziz.

### Ataria Irratia Lizartzatik 2014/05/30



Irrati ibiltaria herriz herri ibili da ostiralero, eta maiatzaren 30ean, Lizartzaren txanda izan zen. 10:00etan hasita lizartzarrak izan ginen protagonista irratian. Udal ordezkariak eta ikastetxeko haurrak gerturatu ziren mikrofonoetara eta baita herriko hainbat eragile ere.

### Lurrikara Lizartzan 2014/06/06



Ekainaren 4 eta 5 arteko gauean bi lurrikara izan ziren Tolosaldean. Richter eskalan 2,8 graduko indarra izan zuen batek, eta Orexan izan zuen epizentroa. Bigarrena, ordu erdi beranduago izan zen, 2,4 graduko indarra izan zuen, eta Lizartzan izan zen erdigunea.

## San ferminak lizartzan 2014/07/07



Udaleku irekietako gaztetxoek san ferminak ospau zituzten entzierroa eginez eta zezenekin jolastuz.

## Nagore Arozenak zilarrezko eta brontzezko dominak irabazi ditu



Zilarrezko eta brontzeko dominak maletan sartuta etorri ziren Mexikon jokatu zen Munduko Pilota Txapelketatik Maider Mendizabal anoetarra eta Nagore Arozena lizartarra.

## Lizartzako futbolari gazteak Munduko Txapelketan

Urriaren 27tik 31ra bitarte haurren Munduko Areto Futbolako eta Mikrofutsaleko



Txapelketa jokatu zen Lloret de Mar-en (Katalunian), eta bertan Lizartzako ordezkariak izan zen Euskadi taldearen izenean.

## Lizartzako eskola berriaren eskaera

Lizartzan eskola berria egiteko aldarrikapenek ez dute etenik, apirilaren 19an guraso elkarteko kideak Eusko Jaurlaritzako hezkuntza sailarekin bildu ziren; "change.org" atarian sinadura bilketa egin zuten; hainbat elkartaratze egin dituzte; Batzar Nagusietan izan dira Lizartzako eta Oresako alka-teak egoera salatuz; Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordeko ordezkariak Lizartzako eskolako haurrek bizi duten egoera bertatik bertara ezagutzeko bisita egin zuten; eta Batzar Nagusiko ordezkariak ere izan ziren bisitan.



## Lizartzako kale nagusian, ibilgailuak geldotzeko lanak

Ibilgailuek lanen ondorioz abiadura geldotu beharko dute eta espaloiz zabalagoei esker oinezkoek leku gehiago izango dute.



## Mikel Olaetxea bikain lau t'erdiko txapelketan



Maila bikaina erakutsi zuen Mikel Olaetxeak lau t'erdiko txapelketan. Berasaluzeren lesioak ireki zizkion kaiolako atea eta 3 garaipen lortuta 8 onenen artean sailkatu zen. Ligaxkako lehen jardunaldian berriz, Ezkurdia gainditu eta Olaizola handiari ere aurre egin zion Atanon.

# Etorkizuna **Euskal Herri**tik etorriko da

LIZARTZAKO EZKER ABERTZALEA.

2011ko urriaren 20an ETAk borroka armatua bertan behera uzteko erabakia egin zuen publiko. Hiru urte eta bi hilabete bete dira gertakari hartatik eta honakoak nabarmendu behar ditugu:

- Azken hiru urteotan gauzak izugarri aldatu dira Euskal Herrian. Politikaren eremua zabaldu egin da eta betirako bakerako aukerak inoiz baino sendoagoak dira.
- Gatazkaren ondorio diren kontu batzuk ez dira konponbidean jarri, Gobernu espainolak normalizazio politikorako prozesuari sekulako beldurra diolako.
- Hiru urte hauetan aurrera emandako urrats guztiak euskal aktoreek eman dituzte; PP eta PSOE bake prozesua zangozabatzena dedikatu dira etengabe.
- Hortaz gain, oraindik errepresio poliziala oso presente dago Tolosaldean, eta Euskal Herri osoan. Izan ere, azken aldi honetan erasoak eta jazarpenak egon dira berriro ere gure eskualdean. Hor daude, adibidez hainbat kidek pairatu berri duten atxiloketa simulakroak, kolaborazio eskaerak... edo aurreko asteotan Txindoki mendiko magaletan edo Gipuzkoako errepide sare zabalean, Guardia Zibilak buruturiko kontrol politika itogarria. .

Hiru urte hauek demostratu dute bakeak, normalizazioak eta eskubideen zaintzak ezin dutela inondik ere kontatu Estatuko indar politiko nagusiekin. PP eta PSOE galtzaile eta guztiz gutxitua ikusten dute bere burua plano politikoan eta beraz ez dute inongo urra-

tsik emango positiboan. Eta distantziak gordeta, horixe bera da Katalunian gertatzen ari dena.

Beste aldetik, guztiz kritikagarria da Lakua eta PNVren jarrera, berriro ere ikusle bezala kokatzen delako, gatazkak beraiekin zerikusirik ez balu bezala eta hori ez da horrela. Jaurlaritza eta PNV parte dira gatazka honetan. Eta Espainiako gobernuak darabilen jarrerari aurre egin eta horretarako behar diren akordioak bilatu beharrean, bere erabakien ondorioz bake agertokia posible egin dutenak eta baita Ezker Abertzalea ere erasotzera dedikatzen da etengabe.

Ondorioz, etorkizuna euskal herrietik etorriko da, berriro ere aldeakartasunaren erabilpenetik. Euskaldunok erronka daukagu etorkizun desberdina eraikitzeko, bai gatazkaren ondorioen eremuan ahalik eta presio sozial eta politikorik handien eta osatuena erabiliz Madrilen aurrean; burujabetzaren aldeko posizioak lantzen euskaldunok hobeki bizi ahal izateko eta azken finean, gure herria bere etorkizunaren jabe izan dadin bide komuna eta partekatua adostuz: hori da euskal bidea, gure egoera politiko eta sozial partikularretik herri ikuspegi oinarrituta indarrak bilduz askatasunera eramanez gaituen ibilbide adostu eta zehaztea.

Guzti honetan gainera badaukagu gutako bakoitzak gure ekarpena egiteko aukera paregabea.

Izan gaituzen Askapen Prozesu honetan gu ere protagonistak.

Ezker Abertzaleak erronka horri helduko dio gogotsu eta eskuzabaltasunez.

**Lortuko dugu !!**

# Badatoz ihauteriak!!

Eta gure herritarrak, lagunak, senideak kartzelan dituzte, mendeku gogorrena jasaten, estatuaren mendeku zikina.

Ez daiteke beste modu batez azaldu jasaten ari direna eta gu lagunok, senideok, jasan behar duguna.

Aislamentua, bi egunez behin, ziegatan 28 ordu segidan egin behar izaten dute, patioa 20 metro karratukoak, berogailua izorratua, liburuak kontatuak, erropa kontatuak,..gauzak ez dira aldatu, okertu agian.

Senideok, lagunok, berriz beraiekin egoteko gure bi-ziak harriskuan jarri behar izaten ditugu bidai amaigabeak eginez, ekonomikoki xautze izugarria jasaten ari gara.

Esanguratsua da astero presoak bixitatzeko kilometroak batzen baditugu munduari 8,8 buelta ematen ditugula jakiteak.

Nahikoa da, Herria bakearen gose da, bidea egiten ari gara eta honetarako presoak etxeratzea ezinbestekoa da.

SARE sortzen ari da , preso eta iheslarien eskubiden aldeko talde anitza, pentsaera desberdinetako gendea bat eginez Dispersiorekin amaitzera goaz, herriko sarekidekin harremanten jarri edo eta web horrian sartu eta ekin lanari.



Garikoitz herrian izan dugu aste eta erdiko bidai on-doren, ordu eta erdi bere senidekin egoteko aukera izan zuten, legeak ematen dion denbora motzena utzi zioten.

Herritarren eta senideen berotasuna jaso zuen, hainbeste urte eta gero bere etxean aurkitu zen, seguru gaude begiak itxi eta momento zoriontsu horiek behin eta berriz biziko dituela.

Denon lanarekin, behin eta berriz ozenki esanez bukatuko dugu bidegakeri guzti honekin, animo, ihauterietan ere **Gari** eta **Aitor** gurekin izango dira.

Hemendik ere besarkada eta animo ugari Gari eta Aitorri. Eutsi goiari !!

**Ongi pasa 2015eko ihauteriak!!**

**LIZARTZAKO PRESO ETA IHESLARIEN LAGUN ETA SENIDEAK**

## PRINTZAK

### Adi!

17 urtetik beherakoek mozorrotuen saria jasotzeko (baserriko oilaskoak) eta adin horretatik gorakoek (mozorro eta gurdiak) ihauteri ondoren emango den afarira joan ahal izateko ezinbestekoa izango dute beren ize-na ematea tabernetan jarriko diren zerrendetan. Listak **Otsailaren 5ean** jasoko dira.

### Bazkaria

**Bazkari txartela salgai otsailaren 5 arte:**

HELDUAK 20 €  
HAURRAK 12 €

## Argazki lehiaketa

Aurtengoan, argazki lehiaketa egingo dugu pasa den urteko argazkiekin, beraz, bidali argazkiak [otsolardantzataldea@gmail.com](mailto:otsolardantzataldea@gmail.com) helbidera!! Pertsona bakoitzak gehienez lau argazki bidali ahal izango ditu eta argazkiak bidaltzeko azken eguna **urtarrilaren 31** izango da. Jasotako argazkiekin **proiektzioa** egingo da otsailaren 5ean, beraz, **HASI ARGAZKIAK AUKERATZEN!!**

## Mila esker!

**Auztegi eta Martitxonea sagardogileei** gure eskerrak sagardo dastaketan laguntzen dutelako.

## Apaindu ditzagun balkoiak!

Azken urte hauetan bezela aurtengoan ere herrian ihauterietan balkoirik politena, eleganteena, bereziena... sarituko dugu. Oso ideia orijinalak ikusten ditugu urtero eta aurten ere horixe espero dugu. Saria "La Perla" Talasoterapia zentruan bi pertsonentzako zirkuitua izango da.

laz Lurdes eta Iparra izan ziren sari horren irabazle. Ea aurten ere ideia berri eta orijinalak ikusten ditugun.



**HASI BURUA ASTINTZEN!!!!**

# Lizartzako ihauteriak 2015

## EGITARAUA

### URTARRILAK 31, LARUNBATA

**12.00etan:** Ihauteriei hasiera emango zaie gibela dastatzuz, Udal ordezkariak eta txekorra plazan ditugula. Ondoren, antzerkia eta Otsolar dantza taldearen emanaldia.

**19.00etan:** Kantu poteoa herriko ihauteri kantuak abestuz.

### OTSAILAK 5, OSTEGUNA

**19.00tan:** "IHAUTERIAK 2014 IRUDITAN" argazki proiektzioa gunean.

### OTSAILAK 6, OSTIRALA

**14.15ean:** Eskolak antolatuta mozorro festa. Ondoren, kalejira.

### OTSAILAK 7, LARUNBATA

**7:00etan:** Plazan elkartu eta kalejira Uetako zubitik dantzari, txantxo eta txistulariekin. "Diana" abestuz hasiko dugu ihauteria.

**7.30ean:** Puske-biltzea, dantzari eta txantxoak elkarrekin ospeletik.

**9.30ean:** Etxe-zahar baserrian geldialdia gosaltzeko.

**12.00etan:** Mozorro, gurdi eta txarangen irteera Errota ataritik.

**13.30ean:** Ihauteri partaide guztiek kalejira, Arrateko zubitik irtenda. Ondoren, denok elkarrekin bazkalduko dugu herriko frontoian.

**18.00etan:** Gurdi eta mozorroak Joxe Mariko aparkalekuan bilduko dira kalejiran plazara jaisteko, bertan sagardotegi ezberdinetako sagardoak eta "Lizartzako talogileak" egindako taloak jateko aukera izango da.

### OTSAILAK 8, IGANDEA

**11:00etan:** Meza Nagusia. Ondoren, hamaiketako plazan.

**12:00etan:** Dantzariak kalean ibiliko dira puska biltzen gurdi, mozorro eta gainerakoekin batera. Ondoren, Lizartzako Ihaute Dantzak plazan.

**14.00etan:** Ihauteri bazkaria herriko pilotalekuan. Ondoren, txaranga, jokoak, zozketa...

**20.30ean:** Plazan "ijitoa" errez ihauterien amaiera.



# DIANA

Jeiki zaitetze Lizartzatarrok  
gaur hasten zaigu ihauteria  
Goizean goiztik kalera irten da  
atera barrengo poz guztia  
Ohitura zaharrak bete ditzagun  
goratuz beti gure herria  
Jeiki zaitetze Lizartzatarrok  
gaur hasten zaigu ihauteria  
Lizartzan gaur eroak igerri  
gauza zuzenik ez dela ageri  
han eta hemen trakeskeri ugari  
dibertitzeko honuntza etorri  
Deitzen digute "ijito herria"  
hator eta ikusi gaur dela egia  
salto eta dantza hau dek umoria  
iraun dezala gure ihauteriak



Balmaseda  
Banaketak



TXIRRITX  
ELKARTEK

Goiz-Argi

JOSE MARI  
JATETXEA

Danon Txokoa  
bar

itzala  
kafetegia

OSTATU  
TABERNA



Lizartzako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia